

# KANALAK

Gure zerbitzuak hainbat kanal izango ditu; komunikazio-kanala, banaketa-kanala eta salmenta-kanala eta hauek bezeroekiko harreman guneak dira. Hauen bitartez, gure proiektua merkatu-segmentu-tuetara iristea lortzen dugu, gure balio-proposamena helarazteko.

Lehenengoa, hau da, komunikazio-kanala kontuan harturik, bezeroekin komunikatzeko dauden segmentu desberdinak dira eta gure kasuan aplikazioa izango da bezeroekin komunikatzeko bide nagusia. Aplikazioa deskargatzea doainik izango da eta hori deskargatu bezain laister hainbat datu pertsonal eskatuko ditu. Aplikazio horretan hiru matrikula desbedin sartzeko aukera izango du bezeroak, horrela garraio desberdinak konbinatu ditzake: hiru kotxe, hiru motor, bi kotxe eta motor bat edo eta bi motor eta kotxe bat. Aplikazio honek zerbitzua asko errazten du; izan ere, gaur egun edonork erabiltzen du mugikor bat eta denok eskura dugun gailu bat da.

Bigarrenik, banaketa-kanala sakondu beharra dago eta honetarako kanalak dituen bost faseak sakonduko ditugu: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta azkenik, salmenta ondorengoa. Perzepzioa aurretik azaldutakoa izango litzateke; bezeroak nola jasoko duen gure zerbitzua. Ebaluazioan, guk eskaintzen dugun dena ondo egotea izango litzateke idealena, horrela balorazio denak positiboak izatea lortuko genuke eta horretarako aplikazioa egunera eramatea eta akatsik ez dagoela ziurtatzea ezinbestekoa da. Erosketaren kasuan, guk ez dugu produkturik salduko baina gure aplikazioa jendearengana iristea, inpresio ona ematea eta jendearentzat lagungarria izango delaz aparte, haien bizitza erraztuko duela eta ondorioz zerbitzua "erostea" lortu nahi dugu.

Hirugarrenik eta azkenik, salmenta-kalarekin jarraituko dugu eta horretarako aurretik azaldu gabeko bi faktore funtsezkoak dira. Bata, entrega: nola iritsiko zaio gure zerbitzua bezeroari? Hau nahiko erraza da, propaganda on bat eginaz jendea gure aplikazioaz ohartuko da eta behin hau deskargatuta edukitzean eta hileroko diru kopuru bat sartean bezeroari gure zerbitzua iritsiko zaio; nahi duenea erabiliko duena. Bestetik, amaitzeko, salmenta ondorengoa. Honekin bezeroak zerbitzua eskuratu ondoren lortuko dituen onurei erreferentzia egiten dioela suposatzen dut. Eta esan beharra dago denbora eta gasolina aurrezteaz gain, aparkaleku bat bilatzen ari zeran bitartea sortzen zaizun estresa ere ekidien laguntzen duela isuritako CO2 gas emisioak gutxituko direla ahaztu gabe.